

## **BERTSOLARIEN AHOZ. MODERNIZAZIO PROZESUA ETA IDENTITATE BIDEAK. GIPUZKOA, 1830-1936**

**Tesiaren egilea:** Luzia Alberro Goikoetxea

**Unibertsitatea:** Deustuko Unibertsitatea

**Saila:** Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Komunikazio Departamentua

**Tesi-zuzendaria:** Jose Urrutikoetxea Lizarraga

**Tesiaren laburpena:**

Doktorego-tesi honen helburu nagusia, Gipuzkoan 1830 eta 1936 urte bitartean gertatu zen modernizazio-prozesuaren baitan, sei bertsolari gipuzkoarren ahoz herri xeheari zein identitate-bide proposatu zitzaizkion aztertzea da.

Sarrera eta ondorioez gain, lau atal nagusi ditu lan honek. Lehenengoa kokapen historiografikoa da. Bertan identitate kontzeptuaren esanahiaz eta hura aztertzeko bidez mintzo gara. Horretaz gainera, orain artean Gipuzkoako XIX. eta XX. mende hasierako modernizazioa nola aztertu den eta ikerketa horietan identitatearen azterketari eta, zehazkiago, herri xehearen identitatea aztertzeari zein toki egin zaion adierazi dugu.

Bigarren atalean hiru alderdi azaldu ditugu, eduki-azterketan oinarrituz batez ere: bertsoak iturri historiko gisa zenbateraino erabili izan diren, nola jaso ditugun eta guk horien azterketarako zein metodologia erabili dugun.

Hirugarren atalean iturri gisa erabili ditugun bertsoen egileengana hurbildu gara. Hauek izan dira aztertu ditugun bertsolariak: Xenpelar (1835-1869), Bilintx (1831-1876), Pello Errota (1840-1919), Pedro Mari Otaño (1857-1910), Txirrita (1860-1936) eta Joxe Mari Lopetegi (1875-1942). Kasu guztietan bertsolari horiei buruz bibliografiak esandakoa, hainbat datu biografiko eta haien bertso-produkzioaren ezaugarriak jaso ditugu. Azterketarako erabilitako bertsoak Antonio Zavalaren Auspoaren Sail Nagusiko argitalpenetatik eta Joxan Elosegik Joxe Mari Lopetegiren inguruan argitaratutako liburutik hartu ditugu.

Laugarren atalean bertsoen azterketaren emaitza jaso dugu. Hasiera batean identitate-azterketa hau egiteko kontzeptu jakin batzuen bila abiatu baginen ere, laster konturatu ginen iturriei entzun egin behar geniola. Horrek irauli egin zuen gure ikerketa: identitate jakin baten bila hasi baginen ere, askotariko identitate-proposamenak zein testuinguruan eta modernizazioak zekartzan zein aldaketaren baitan gertatu ziren aztertzera pasa ginen. Laugarren atal honek modernizazioak zekartzan aldaketa ekonomiko, demografiko, soziopolitiko eta mentalitateei

lotutakoei egiten die tokia: bertsolariek nola bizi eta kontatzen zituzten gertatzen ari zitzazkien mudantza haiek guztiak? Eta horiek guztiak kontuan izanik, zein zen herri xeheari luzatzen zioten identitate-bidea? Guztiak bera eta indar berdinez?

Ondorioen atalak eta hainbat eranskinek osatzen dute doktorego-tesi hau.